

ELKARTEAREN ESTATUTUAK

LEHENENGO KAPITULUA

IZENA ETA LEGE-ARAUBIDEA

1.- artikulua.-

2019ko abuztuaren 20an, AS/B/22722/2019 erregistro-zenbakiarekin inskribatutako MAIRI EMAKUME FEMINISTA BATZA-ren estatutu hauek aldatu egin dira, Euskadiko Elkarteei buruzko ekainaren 22ko 7/2007 Legean eta Elkartzeko Eskubidea arautzen duen martxoaren 22ko 1/2002 Lege Organikoan ezarritakoaren arabera eta Euskal Herriaren Autonomia Estatutuaren 9. eta 10.13 artikuluetan azaltzen denarekin bat etorritz.

Elkartea arau hauen mende egongo da: aipatutako elkarteei buruzko legeak, estatutu hauek (legearen aurkakoak ez badira), elkartearen gobernu-organismoek behar bezala hartutako erabakiak (legearen edota estatutuen aurkakoak ez badira) eta Eusko Jaurlaritzak onesten dituen erregelamenduzko xedapenak (azken horiek osagarriak izango dira).

ELKARTEAREN HELBURUAK

2. artikulua.-

Elkartearen **HELBURUAK** honako hauek dira:

- Gogoeta-guneak eskaini, emakumeen ahalduntzerako nahiz emakumeen arteko aliantzak eraikitzeko.
- Galdakako mobimendu feminista bultzatu: emakumeenganako indarkeria salatu, indarkeria jasan duten edo indarkeria egoeran egon daitezkeen emakumeek izan ditzaketan baliabide ezberdinei buruzko informazioa eman, genero-indarkeriaren gainean eraikitako estereotipo, mito eta jarrerak errotik atera.
- Bizitzaren kalitatea eta autoestimua hobetu, emakumeengan osasun gaitzek eragiten duten arazoan hausnarketa eginez, bereziki arazoan aurreko ohitura eta jarreraren gainean.
- Emakumeen memoria historiko eta kulturala berreskuratu: "Izan zinetelako, gara".

Helburu horiek lortzeko, **JARDUERA** hauek egingo dira, ezarritako legezko betekizunak bete ondoren:

- Informazio hitzaldiak, elkarriketak, alde desberdinetako formazioa eta kultur irteerak.

Aurreko paragrafoan azaldutako jarduerak gorabehera, elkarteak, bere xedeak betetzeko, honako hauek egin ahaliko ditu:

ESTATUTOS DE LA ASOCIACIÓN

CAPÍTULO PRIMERO

DENOMINACIÓN Y REGIMEN LEGAL

Artículo 1.-

Los presentes Estatutos de MAIRI EMAKUME FEMINISTA BATZA con número de Registro AS/B/22722/2019, inscrita con fecha 20 de agosto del 2019, han sido modificados de conformidad con lo establecido en la Ley 7/2007, de 22 de junio, de Asociaciones de Euskadi y la Ley Orgánica 1/2002, de 22 de marzo, reguladora del Derecho de Asociación, de acuerdo con lo establecido en los artículos 9 y 10.13 del Estatuto de Autonomía para el País Vasco.

Dicha Asociación se regirá por los preceptos de las citadas Leyes de Asociaciones, por los presentes Estatutos en cuanto no estén en contradicción con la Ley, por los acuerdos válidamente adoptados por sus órganos de gobierno, siempre que no sean contrarios a la Ley y/o a los Estatutos, y por las disposiciones reglamentarias que apruebe el Gobierno Vasco, que solamente tendrán carácter supletorio.

FINES QUE SE PROPONE

Artículo 2.-

Los **FINES** de esta Asociación son:

- Ofrecer espacios de reflexión sobre el empoderamiento y la construcción de alianzas entre mujeres.
- Promover el movimiento feminista en Galdakao denunciando la violencia contra las mujeres, orientar sobre los distintos recursos disponibles para las mujeres que se encuentran en situación de riesgo o son víctimas de violencia y erradicar actitudes, mitos y estereotipos en torno a la violencia de género.
- Mejorar la autoestima y la calidad de vida reflexionando sobre los hábitos y las actitudes ante los problemas de salud que afectan en mayor medida a las mujeres.
- Recuperar la memoria histórica y cultural de las mujeres: "Izan zinetelako, gara", (Porque fuisteis, somos).

Para la consecución de dichos fines se llevarán a cabo, previo el cumplimiento de los requisitos legales establecidos, las siguientes

ACTIVIDADES:

- Charlas informativas, coloquios, formación en diferentes aspectos y salidas culturales.

Sin perjuicio de las actividades descritas en el apartado anterior, la Asociación, para el cumplimiento de sus fines podrá:



Nahi izanez gero, J0D0Z-T2FY2-4BEJ bilagailua erabilita, dokumentu hau egiazkoa den ala ez jakin liteke egoitza elektronikoa honetan: <http://euskadi.eus/lokalizatzailea>

La autenticidad de este documento puede ser contrastada mediante el localizador J0D0Z-T2FY2-4BEJ en la sede electrónica <http://euskadi.eus/localizador>

- Helburuak betetzeko edo horretarako baliabideak biltzeko era guztietako jarduera ekonomikoak gauzatu.
- Era guztietako ondasunak edozein tituluren bidez eskuratu eta eduki, eta mota guztietako egintzak eta kontratuak egin.
- Nolanahiko ekintzak burutu, betiere legeekin eta Estatutuekin bat etortzekotan.

EGOITZA SOZIALA

3. artikulua.-

Hona elkartearen helbide nagusia: Zubiaurrearren Kalea: 7 zk.: behe solairua: Udalerria: Galdakao P.K.:48960.

Elkarteak beste lokal batzuk ere eduki ditzake Autonomia Erkidegoan, Batzar Orokorrek hala erabakitzen badu.

LURRALDE-EREMUA

4. artikulua.-

Hemen, lurralde-eremu honetan, garatuko ditu bere funtzioak elkarteak: Euskal Autonomia Erkidegoa.

IRAUPENA ETA IZAERA DEMOKRATIKOA

5. artikulua.-

Elkartea iraunkorra izateko eratu da, eta IV. kapituluaren esaten den bezala ezohiko batzar orokorrean hartutako erabaki bidez baino ezingo da desegin, edo legeetan aurreikusitako arrazoren batengatik.

Elkartearen funtzionamendua eta barne-antolamendua demokratikoa izango da, eta pluraltasuna erabat errespetatuko da. Erabat deusezak izango dira elkartzeko oinarritzko eskubidearen alderdietako edozein betetzen ez duten itunak, estatutu-xedapenak eta erabakiak.

BIGARREN KAPITULUA

GOBERNU- ETA ADMINISTRAZIO-ORGANOAK

6. artikulua.-

Elkartearen agintea eta administrazioa kide anitzeko organo hauen esku egongo da:

- Emakume Bazkideen Batzar Orokorra izango da organo gorena.
- Zuzendaritza Batzordea izango da kide anitzeko zuzendaritza-organoa iraunkorra.

BATZAR OROKORRA

7. artikulua:

Batzar Orokorra, bazkide guztiek osatua, emakume bazkideen borondatea adierazteko organoa da.

Hona Batzar Orokorraren ahalmenak:

- Desarrollar actividades económicas de todo tipo, encaminadas a la realización de sus fines o a allegar recursos con ese objetivo.
- Adquirir y poseer bienes de todas clases y por cualquier título, así como celebrar actos y contratos de todo género.
- Ejercitar toda clase de acciones conforme a las Leyes o a sus Estatutos.

DOMICILIO SOCIAL

Artículo 3.-

El domicilio principal de esta Asociación estará ubicado en Galdakao, calle Zubiaurrearren, nº 7, bajo, de Galdakao, Código Postal 48960.

La Asociación podrá disponer de otros locales en el ámbito de la Comunidad Autónoma, cuando lo acuerde la Asamblea General.

ÁMBITO TERRITORIAL

Artículo 4.-

El ámbito territorial en el que desarrollará principalmente sus funciones comprende C.A.P.V.

DURACIÓN Y CARÁCTER DEMOCRÁTICO

Artículo 5.-

La Asociación se constituye con carácter permanente, y sólo se disolverá por acuerdo de la Asamblea General Extraordinaria según lo dispuesto en el Capítulo VI o por cualquiera de las causas previstas en las Leyes.

La organización interna y el funcionamiento de la Asociación deberán ser democráticos, con pleno respeto al pluralismo. Serán nulos de pleno derecho los pactos, disposiciones estatutarias y acuerdos que desconozcan cualquiera de los aspectos del derecho fundamental de asociación.

CAPÍTULO SEGUNDO

ÓRGANOS DE GOBIERNO Y ADMINISTRACIÓN

Artículo 6.-

El gobierno y administración de la Asociación estarán a cargo de los siguientes órganos colegiados:

- La Asamblea General de las socias, como órgano supremo.
- La Junta Directiva, como órgano colegiado de dirección permanente.

LA ASAMBLEA GENERAL

Artículo 7.-

La Asamblea General, integrada por la totalidad de las socias, es el órgano de expresión de la voluntad de éstas.

Son facultades de la Asamblea General:

- a) Elkaratearen jarduera-plan orokorra onartzea.
- b) Urteko kontuak eta hurrengo ekitaldiko aurrekontua aztertu eta onartzea.
- c) Zuzendaritza Batzordearen kudeaketa onartzea.
- d) Estatutuak aldatzea.
- e) Elkarateak desagitea.
- f) Presidente, idazkaria, diruzaina eta kide anitzeko aginte-organoko gainontzeko kideak, baldin badaude, izendatzea eta kargutik kentzea; eta horiek guztiak ikuskatu eta kontrolatzea.
- g) Beste elkarate batzuekin batera federazioak eta konfederazioak osatzea, edota horietatik ateratzea.
- h) Ondasun higiezinak erabili edo besterentzeko erabakiak hartzea.
- i) Aginte-organoko kideei ordaindu egin behar zaiela erabakitzea, hala komeni bada.
- j) Kuota arruntak eta bereziak ezartzea. Ahalmen hau, hala ere, Batzar Orokorrak aginte-organuari eskuordetu diezaioke horretarako bereziki hartutako erabakiaren bidez.
- k) Emakume bazkideak behin betiko kanporatzeko erabakia hartzea.
- l) Beste organo sozialen bati esleitu gabeko beste edozein eskumen.

- a) Aprobar el plan general de actuación de la asociación.
- b) El examen y la aprobación de las cuentas anuales y del presupuesto del ejercicio siguiente.
- c) Aprobar la gestión de la Junta Directiva.
- d) La modificación de estatutos.
- e) La disolución de la asociación.
- f) La elección y el cese de la presidenta, de la secretaria o la tesorera y, si lo hubiere, de los demás miembros del órgano de gobierno colegiado, así como su supervisión y control.
- g) Los actos de federación y confederación con otras asociaciones, o el abandono de alguna de ellas.
- h) La aprobación de la disposición o enajenación de bienes inmuebles.
- i) El acuerdo de remuneración de los miembros del órgano de gobierno, en su caso.
- j) La fijación de las cuotas ordinarias o extraordinarias, si bien esta facultad podrá ser delegada por la Asamblea General al órgano de gobierno mediante acuerdo expreso.
- k) La adopción del acuerdo de separación definitiva de las asociadas.
- l) Cualquier otra competencia no atribuida a otro órgano social.

8. artikulua.-

Batzar Orokorra ohiko eta ezohiko bilkuretan bilduko da.

9. artikulua.-

Batzar Orokorrak gutxienez urtean behin egin beharko du ohiko bilkura, 7. artikuluko a), b) eta c) idatz-zatietan zehaztutako erabakiak hartze aldera.

10. artikulua.-

Batzar Orokorra Zuzendaritza Batzordeak erabakitzen duenean bilduko da ezohiko bilkuran, bere ekimenez edota emakume bazkideen %25ek eskatu duelako. Bilkura eskatzeko arrazoiak eta helburuak azaldu beharko dira, baina, nolana ere, honako gaiak aztertzeko eta erabakitzeko bilduko da:

- a) Estatutuak aldatzeko.
- b) Elkarateak desagiteko.

11. artikulua.-

Batzar Orokorra biltzeko deialdiak idatziz egin behar dira; bilkuren tokia, eguna eta ordua adierazi beharko dira, bai eta gai-zerrenda ere, eztabaidatuko diren gaien aipamen zehatzarekin. Deialdia egiten denetik gutxienez hamabost egun pasatu beharko dira bilkura lehen deialdian egiteko. Hala badagokio, bigarren deialdiaren data eta ordua ere adieraz daitezke. Dena dela, deialdi batetik bestera gutxienez ordu erdiko tarte utzi beharko da.

Artículo 8.-

La Asamblea General se reunirá en sesiones ordinarias y extraordinarias.

Artículo 9.-

La Asamblea General deberá ser convocada en sesión ordinaria, al menos una vez al año, a fin de adoptar los Acuerdos previstos en el artículo 7º-a), b) y c).

Artículo 10.-

La Asamblea General se reunirá en sesión extraordinaria cuando así lo acuerde la Junta Directiva, bien por propia iniciativa, o porque lo solicite el 25 % de las asociadas, indicando los motivos y fin de la reunión y, en todo caso, para conocer y decidir sobre las siguientes materias:

- a) . Modificaciones Estatutarias.
- b) Disolución de la Asociación.

Artículo 11.-

Las convocatorias de las Asambleas Generales se realizarán por escrito expresando el lugar, día y hora de la reunión, así como el orden del día con expresión concreta de los asuntos a tratar. Entre la convocatoria y el día señalado para la celebración de la Asamblea en primera convocatoria habrán de mediar al menos cinco días, pudiendo así mismo hacerse constar si procediera, la fecha y hora en que se reunirá la Asamblea en segunda convocatoria, sin que entre una y otra pueda mediar un plazo inferior a media hora.

Las Asambleas Generales, tanto ordinarias como

Batzar orokorrak -ohikoak nahiz ezohikoak- deialdian balio osoz eratuta geratuko dira lehenengo deialdian, botoa emateko eskubidea duten emakume bazkideen herena bertaratzen bada; eta bigarren deialdian, botoa emateko eskubidea duten emakume bazkideen kopurua edozein dela ere.

12. artikulua.-

Batzar Orokorraren erabakiak gehiengo soilaz hartuko dira, hau da, bertaratuen nahiz ordezkatuak baiezko botoak ezezkoak baino gehiago direnean. Nolanahi ere, batzarrean dauden edo ordezkaturakoen gehiengo osoa (erdia+1) beharko da gai hauen inguruko erabakiak hartzeko:

- a) Elkartea desagitea.
- b) Estatutuak aldatzea.
- c) Ondasunak erabili edo besterentzea.
- d) Ordezkaritza-organoko kideei ordaintzea.

13. artikulua.-

Emakume Bazkideek edozein emakume bazkideren utzi dezaketen beren ordezkaritza, Batzar Orokorrera joateari dagokionez. Ordezkaritza hori emateko baimena idatzirik egin beharko da, eta batzordeko idazkariak saioa hasi aurretik eduki beharko du. Elkarlearen egoitza dagoen herritik kanpo bizi diren emakume bazkideek ordezkaritza beste norbaiten esku uzteko agiria postaz bidali dezakete.

Emakume bazkide bakoitzak bost emakume bazkide ordezkatu ahal izango ditu, gehienez ere.

ZUZENDARITZA-BATZORDEA

14. artikulua.-

Zuzendaritza Batzordea da Batzar Orokorraren xedapen eta zuzentzauei jarraikiz elkarlearen interesak kudeatu eta ordezkatzeko dituen organoa. Emakume bazkideek baino ezingo dute osatu ordezkaritza-organoa.

Zuzendaritza Batzordea osatuko dutenak honakoak izango dira: (EZ ADIERAZI PERTSONEN IZENIK. BAKARRIK ADIERAZI BEHAR DIRA ZUZENDARITZA-BATZORDEAN DAUDEN KARGUAK) (X BATEZ MARKATU)

- ☒ Presidente
- ☒ Idazkaria
- ☒ Diruzaina
- ☐ Idazkaria-Diruzaina (kargu bakarra)
- ☐ Idazkariak bere gain hartu ahal izango du diruzainaren funtzioa (bi kargu ezberdinak dira, eta, batzuetan, pertsona berberak bete ahal izango ditu)
- ☒ Presidenteordea
- ☒ Zenbat bokal gehienez ere: 3
- ☐ Besterik: Zehaztu

extraordinarias, quedarán válidamente constituidas en primera convocatoria, cuando concurren a ella un tercio de las socias con derecho a voto, y en segunda convocatoria cualquiera que sea el número de las asociadas con derecho a voto.

Artículo 12.-

Los acuerdos de la Asamblea General se adoptarán por mayoría simple de las personas presentes o representadas, cuando los votos afirmativos superen a los negativos. No obstante, requerirán una mayoría absoluta (mitad + 1) de las personas presentes o representadas, los siguientes acuerdos:

- a) La disolución de la asociación.
- b) La modificación de estatutos
- c) La disposición o enajenación de bienes.
- d) La remuneración de los miembros del órgano de representación.

Artículo 13.-

Las socias podrán otorgar su representación, a los efectos de asistir a las Asambleas Generales, en cualquier otra socia. Tal representación se otorgará por escrito, y deberá obrar en poder de la persona secretaria de la Asamblea, antes de celebrarse la sesión. Las socias que residan en ciudades distintas a aquella en que tenga su domicilio social la Asociación, podrán remitir por correo el documento que acredite la representación.

Cada asociada no podrá representar a más de cinco socias

LA JUNTA DIRECTIVA

Artículo 14.-

La Junta Directiva es el órgano de representación que gestiona y representa los intereses de la asociación, de acuerdo con las disposiciones y directivas de la Asamblea General. Sólo podrán formar parte del órgano de representación las asociadas.

La Junta Directiva estará integrada por: (NO INDICAR NOMBRES DE LAS PERSONAS SINO LOS CARGOS EXISTENTES EN LA JUNTA DIRECTIVA)(MARCAR CON UNA X)

- ☒ Presidencia
- ☒ Secretaría
- ☒ Tesorería
- ☐ Secretaría- Tesorería (un solo cargo)
- ☐ Secretaría podrá asumir la función de tesorería (dos cargos distintos que, en ocasiones, podrá desempeñar la misma persona)
- ☒ Vicepresidencia
- ☒ Vocalías Número máximo: 3
- ☐ Otros: Especificar

15. artikulua.-

Zuzendaritza Batzordeko kideren bat bilera horietara 3 aldiz jarraian, edo, tarteka 3 aldiz agertzen ez bada, dagokion kargua utzi egin beharko du, hutsegite horiek ez baditu arrazoitzen.

16. artikulua.-

Batzar Orokorrak hautatuko ditu Zuzendaritza Batzordeko kargudunak, **2 URTERAKO**, Batzordeak berriaz baliogabetu ezean. Kargudun berbera behin eta berriro hautatu ahal izango da.

17. artikulua.-

Pertsona fisikoek zein pertsona juridikoen ordezkariak baldintza hauek bete beharko dituzte Zuzendaritza Batzordeko kide izateko:

- a) Adin nagusikoa izatea, eskubide zibil guztien jabe izatea, eta indarrean dauden legeetan ezarritako bateraezintasun-arrazoirik ez izatea.
- b) Estatutuaren aurreikusitako moduan izendatua izatea.
- c) Erakundeko emakume bazkide izatea.

18. artikulua.-

Zuzendaritza Batzordeko kide izateko, lehendabizi Batzorde Orokorrak izangaia hautatu behar du, eta, gero, izendatu horrek kargua onartu behar du.

Zuzendaritza Batzordeko kideen dieta eta gastuak ordaintzea erabaki dezake Batzar Orokorrak.

19. artikulua.-

Zuzendaritza Batzordeko kideek kasu hauetan utziko dituzte karguak:

- a) Agintealdia bukatzen denean.
- b) Dimittitzen dutenean.
- c) Emakume bazkide izateari uzten diotenean, edo kargua betetzeko ezintasun-arrazoiak dituztenean.
- d) Estatutu hauetako 16. artikulua aplikatuz, Batzar Orokorrak kargua baliogabetzea erabakitzen duenean.
- e) Hiltzen direnean.

Baldin eta kargua uzteko arrazoiak "a)" idatz-zatien agertzen dena bada, Zuzendaritza Batzordeko kideek jardunean jarraituko dute lehenengo batzar orokorra egin arte. Batzar horretan aukeratuko dira kargudun berriak.

Arrazoiak b), c), d) eta e) idatz-zatietan agertzen dena bada, berriz, hutsik gelditutako kargua betetzeko norbait behin-behineko izendatuko du Zuzendaritza Batzordeak, eta Batzar Orokorrak erabakiko du izendapena onetsi ala ez. Ezetsi egiten badu, behar diren kargu-izendapenak egingo ditu.

Artículo 15.-

La falta de asistencia a las reuniones señaladas, de las integrantes de la Junta Directiva, durante 3 veces consecutivas o 3 alternas sin causa justificada, dará lugar al cese en el cargo respectivo.

Artículo 16.-

Los cargos que componen la Junta Directiva, se elegirán por la Asamblea General y durarán un **PERIODO DE 2 AÑOS**, salvo revocación expresa de aquélla, pudiendo ser objeto de reelección.

Artículo 17.-

Para pertenecer a la Junta Directiva serán requisitos indispensables para las personas físicas y para quienes representen a las personas jurídicas:

- a) Ser persona mayor de edad, estar en pleno uso de los derechos civiles y no estar incurso en los motivos de incompatibilidad establecidos en la legislación vigente.
- b) Ser designada en la forma prevista en los Estatutos.
- c) Ser socia de la Entidad.

Artículo 18.-

El cargo de la Junta Directiva se asumirá cuando, una vez designada por la Asamblea General, se proceda a su aceptación o toma de posesión.

La Asamblea General podrá establecer, en su caso, el abono de dietas y gastos de las personas integrantes de la Junta Directiva.

Artículo 19.-

Las personas de la Junta Directiva cesarán en los siguientes casos:

- a) Expiración del plazo de mandato.
- b) Dimisión.
- c) Cese en la condición de socia, o incursión en causa de incapacidad.
- d) Revocación acordada por la Asamblea General en aplicación de lo previsto en el artículo 16 de los presentes Estatutos.
- e) Fallecimiento.

Cuando se produzca el cese por la causa prevista en el apartado a), las personas de la Junta Directiva continuarán en funciones hasta la celebración de la primera Asamblea General, que procederá a la elección de cada cargo.

En los supuestos b), c), d) y e), la propia Junta Directiva proveerá la vacante mediante nombramiento provisional, que será sometido a la Asamblea General para su ratificación o revocación, procediéndose, en este último caso, a la designación correspondiente.

Organo honen osakeran egiten diren aldaketa guztien berri emango zaio Elkartearen Erregistroari.

Todas las modificaciones en la composición de este órgano serán comunicadas al Registro de Asociaciones.

20. artikulua.-

Zuzendaritza Batzordearen eginkizunak hauek dira:

- Elkartearen eguneroko kudeaketaz arduratzea, Batzar Orokorraren jarraibideekin bat etorritik eta haren kontrolpean.
- Elkarteak aurrera eramango dituen ekintzen egitaraua egitea.
- Gastu eta sarreraren urteko aurrekontua eta aurreko urteko kontuen egoera-orria Batzar Orokorrari aurkeztea, hark onartu ditzan.
- Batzar Orokorraren bileretako gaitzerrendak egitea, eta ohiko nahiz ezohiko batzar orokorretarako deialdiak egitea erabakitzea.
- Bazkideek egiten dituzten proposamen eta iradokizunei erantzutea eta horien inguruan hartu beharreko neurriak hartzea.
- Estatutu hauetako aginduak interpretatzea eta Estatutuetako hutsuneak betetzea, betiere elkartearen inguruan indarrean dauden legeekin bat etorritik.
- Batzar Orokorrak berariazko erabakien bidez ematen dizkion eskumenak erabiltzea, betiere ez badira haren eskumen eskusibokoak.

21. artikulua.-

Zuzendaritza Batzordearen bilkurak presidenteak erabaki edo batzordekide batek eskatzen duen bakoitzean egingo dira. Bilkurako buru presidentea izango da, eta ez balego, presidenteordea; eta horien faltan, batzordekide zaharrena.

Batzordeak hartutako erabakiak baliozkoak izateko, biltzen diren emakume batzordekideen gehiengoak aldeko botoa eman behar du. Horretarako, gutxienez emakume batzordekideen kopuruaren erdiak egon behar du bilkuran. Berdinketarik egonez gero, buruaren kalitateko botoa izango da erabakigarria.

Idazkariak bilera-aktak egingo ditu eta akta horiek gero dagokion liburuan transkribatuko dira.

ZUZENDARITZA-BATZORDEKO KARGUAK

PRESENTEA

22. artikulua.-

Beregain hartuko du elkartearen legeko ordezkariak, eta Zuzendaritza Batzordeak eta Batzar Orokorrak hartutako erabakiak gauzatuko ditu. Era berean, aipaturiko bi organo horietako presidentea izango da.

Artículo 20.-

Las funciones de la Junta Directiva son:

- Dirigir la gestión ordinaria de la Asociación, de acuerdo con las directrices de la Asamblea General y bajo su control.
- Programar las actividades a desarrollar por la Asociación.
- Someter a la aprobación de la Asamblea General el presupuesto anual de gastos e ingresos, así como el estado de cuentas del año anterior.
- Confeccionar el Orden del Día de las reuniones de la Asamblea General, así como acordar la convocatoria de las Asambleas Generales ordinarias y extraordinarias.
- Atender las propuestas o sugerencias que formulen las personas socias, adoptando al respecto, las medidas necesarias.
- Interpretar los preceptos contenidos en estos Estatutos y cubrir sus lagunas, sometiéndose siempre a la normativa legal vigente en materia de asociaciones.
- Ejercitar aquellas competencias que le otorgue la Asamblea General mediante Acuerdo expreso, siempre que no sean de su exclusiva competencia.

Artículo 21.-

La Junta Directiva celebrará sus sesiones cuantas veces lo determine la Presidencia, bien a iniciativa propia, o a petición de cualquiera de sus componentes. Será presidida por quien ocupe la presidencia, y en su ausencia, por quien ocupe la vicepresidencia, si lo hubiera, y en ausencia de ambos, por ella persona de la Junta que tenga más edad.

Para que los acuerdos de la Junta sean válidos, deberán ser adoptados por mayoría de votos de las asistentes, requiriéndose la presencia de la mitad de las integrantes de la junta. En caso de empate, el voto de la presidenta será de calidad.

De las sesiones, la secretaria levantará acta que se transcribirá al Libro correspondiente.

CARGOS DE LA JUNTA DIRECTIVA

PRESENCIA

Artículo 22.-

Asume la representación legal de la misma, y ejecutará los acuerdos adoptados por la Junta Directiva y la Asamblea General, cuya presidencia ostentará respectivamente.

23. artikulua.-

Horiez gain, honako eginkizun hauek ere badagozkio:

- a) Zuzendaritza Batzordearen eta Batzar Orokorraren bilera-deiak egin, bilerak bukatutzat eman, bileretan sortzen diren eztabaidak bideratu, eta boto-berdinketa gertatuz gero kalitate-botoarekin erabakitzea.
- b) Elkartearen ekintzen egitasmoa Zuzendaritza Batzordeari proposatzea eta elkartearen zereginak bultzatu eta bideratzea.
- c) Baliotasunez erabakitako ordainketak egiteko agintzea.
- d) Sortzen diren premiazko arazoak konpontzea, eta egiten den lehenengo bilkuran Zuzendaritza Batzordeari horren berri ematea.
- e) Batzar Orokorrak berariazko erabaki bidez ematen dizkion eskumenak erabiltzea, betiere ez badira haren eskumen eskusibokoak.

PRESIDENTEORDEA (HALAKORIK BADA)

24. artikulua.-

Presidenteordeak presidenteari lagunduko dio, eta presidenteak aldi batean bere kargua bete ezin badu, presidenteordeak ordezkatzuko du. Era berean, presidenteak espresuki delegatzen dizkion ahalmenak izango ditu.

IDAZKARIA

25. artikulua.-

Zehazki, elkartean sartzeko eskabideak jaso eta izapidetzea, fitxategia eta bazkideen Erregistro Liburua zaintzea, eta Akta Liburuaren zaintzaren eta idazketaren ardura izatea.

Era berean, elkarteen arloan indarrean dauden legezko xedapenak betetzeaz arduratuko da, erakundearen agiri ofizialak zainduz, elkartearen liburuaren eta artxiboen edukia egiaztatuz eta Zuzendaritza Batzordeko izendapenen eta egoitza sozialaren aldaketan berri emateko egin beharreko jakinarazpenak eginez agintari eskudunari.

DIRUZAINA

26. artikulua.-

Egindako diru-sarrera eta ordainketen berri emango du diruzainak, eta diru-sarrera eta gastuen urteroko aurrekontua eta aurreko urteko kontuen egoera ere jakinaraziko du. Horiek guztiak Zuzendaritza Batzordeari aurkeztu behar dizkio, eta horrek Batzar Orokorrari, hark onartu ditzan.

BOKALAK (HALAKORIK BADA)

27. artikulua.-

Bokalek beren karguei datxekien funtzioak izango dituzte, Zuzendaritza Batzordeko kideak diren

Artículo 23.-

Le corresponden las siguientes facultades:

- a) Convocar y levantar las sesiones que celebre la Junta Directiva y la Asamblea General, dirigir las deliberaciones de una y otra, y decidir un voto de calidad en caso de empate de votaciones.
- b) Proponer el plan de actividades de la Asociación a la Junta Directiva, impulsando y dirigiendo sus tareas.
- c) Ordenar los pagos acordados válidamente.
- d) Resolver las cuestiones que puedan surgir con carácter urgente, dando conocimiento de ello a la Junta Directiva en la primera sesión que se celebre.
- e) Ejercitar aquellas competencias que le otorgue la Asamblea General mediante Acuerdo expreso, salvo que sean de competencia exclusiva de la misma.

VICEPRESIDENCIA (SI LA HUBIERA)

Artículo 24.-

Asumirá las funciones de asistir a la presidenta y sustituirla en caso de imposibilidad temporal de ejercicio de su cargo. Asimismo, le corresponderán cuantas facultades le delegue, expresamente, la presidenta.

SECRETARÍA

Artículo 25.-

Le incumbirá de manera concreta recibir y tramitar las solicitudes de ingreso, llevar el fichero y el Libro de personas socias, atender a la custodia y redacción del Libro de Actas.

Igualmente, velará por el cumplimiento de las disposiciones legales vigentes en materia de Asociaciones, custodiando la documentación oficial de la Entidad, certificando el contenido de los Libros y archivos sociales, y haciendo que se cursen a la autoridad competente las comunicaciones preceptivas sobre designación de Juntas Directivas y cambios de domicilio social.

TESORERÍA

Artículo 26.-

Dará a conocer los ingresos y pagos efectuados, formalizará el presupuesto anual de ingresos y gastos, así como el estado de cuentas del año anterior, que deben ser presentados a la Junta Directiva para que ésta, a su vez, los someta a la aprobación de la Asamblea General.

VOCALÍAS (SI LOS HUBIERA)

Artículo 27.-

Tendrán las obligaciones propias de su cargo como personas integrantes de la Junta Directiva

aldetik (elkartearen zuzendaritza eta kudeaketa arrunta), baita batzordeak berak eskatzen dizkiena ere.

(dirección y gestión ordinaria de la asociación), y así como las que la propia junta las encomiende.

HIRUGARREN KAPITULUA

EMAKUME BAZKIDEAK:

ONARTUAK IZATEKO BALDINTZA ETA
PROZEDURAK, ETA BAZKIDE-MOTAK

28. artikulua.-

Bazkide izan nahi eta baldintza hauek betetzen dituzten emakume guztiak izan daitezke elkarteko kide:

- Adin nagusikoa edo adingabe emantzipatua izatea, norberaren eskubideak erabiltzeko inolako lege-baldintzaren menpe ez egotea eta ebazpen judizial irmoaren bidez eskubideen erabilera mugatuta ez edukitzea.

29. artikulua.-

Elkartean sartu nahi duen emakumeak idatziz aurkeztu beharko du bere eskabidea, bi bazkideren sinadurarekin eta presidenteari zuzenduta. Presidenteak eskaeraren berri emango dio Zuzendaritza Batzordeari, eta horrek erabakiko du eskabidea egin duena elkartean onartu ala ez. Erabakiaren aurkako gora jotzeko errekurtsioa jar dakioko Batzar Orokorrari.

BAZKIDEEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

30. artikulua.-

Hauek dira emakume bazkideen eskubideak:

1. Elkartei buruzko Legearen edo Estatutuen kontrako erabaki eta jardunak aurkaratzea, aurkaratutako erabakiaren edukia ezagutu duten edo ezagutzeko aukera izan duten egunetik aurrera zenbatzen hasita egutegiko berrogei eguneko epean.
2. Elkartearen gobernu- eta ordezkaritza-organoen osaerari, elkartearen kontu-egoerari eta elkartearen jardueri buruzko informazioa jasotzea.
3. Elkarteko beste emakume kideen nortasuna, diru-sarreraren eta gastuen egoera, eta elkartearen ekintzen garapenaren berri edozein unetan izatea, datu pertsonalak babesteko arautegian aurreikusitako moduan.
4. Batzar orokorretarako deiak jasotzea, batzar orokorretara joan eta hitz egin eta botoa emateko eskubidea erabiltzea, eta eskubide hori beste emakume bazkideren baten esku utzi ahal izatea.
5. Elkarteko Estatutu hauen arabera, elkarteko zuzendaritza-organotik parte hartzea eta organo horietarako hautatzaile nahiz hautagai izatea.
6. Indarrean dauden legeetan zehaztutako

CAPÍTULO TERCERO

DE LAS SOCIAS:

REQUISITOS Y PROCEDIMIENTO DE ADMISIÓN Y CLASES

Artículo 28.-

Pueden pertenecer a la Asociación aquellas mujeres que así lo deseen y reúnan las condiciones siguientes:

- Ser mayor de edad o menor emancipada, y no estar sujetas a ninguna condición legal para el ejercicio de su derecho, ni tener limitada su capacidad en virtud de resolución judicial firme.

Artículo 29.-

Las mujeres que deseen pertenecer a la Asociación, lo solicitarán por escrito avalado por dos socias y dirigido a la presidenta, quien, dará cuenta a la Junta Directiva, que resolverá sobre la admisión o inadmisión, pudiéndose recurrir en alzada ante la Asamblea General.

DERECHOS Y DEBERES DE LAS PERSONAS SOCIAS

Artículo 30.-

Toda asociada tiene derecho a:

1. Impugnar los acuerdos y actuaciones contrarios a la Ley de Asociaciones o a los Estatutos, dentro del plazo de cuarenta días naturales, contados a partir de aquél en que la demandante hubiera conocido, o tenido oportunidad de conocer, el contenido del acuerdo impugnado.
2. A ser informada acerca de la composición de los órganos de gobierno y representación de la asociación, de su estado de cuentas y del desarrollo de su actividad.
3. Conocer, en cualquier momento, la identidad de las demás socias de la asociación, el estado de cuentas de ingresos y gastos, y el desarrollo de la actividad de ésta, en los términos previstos en la normativa de protección de datos de carácter personal.
4. Ser convocada a las asambleas generales, asistir a ellas y ejercitar el derecho de voz y voto en las mismas, pudiendo conferir, a tal efecto, su representación a otras socias.
5. Participar, de acuerdo con los presentes Estatutos, en los órganos de dirección de

- emakume bazkideen fitxategian agertzea, eta elkartearen ikurra erabiltzea, baldin badu behintzat.
7. Estatutuen eta, egonez gero, barne-araudiaren ale bana edukitzea, eta zuzendaritza-organoei eskakizunak eta kexak aurkeztea.
 8. Talde-ekintza sozialetan parte hartzea, eta emakume bazkideentzako tresnak erabiltzea (elkartearen egoitza, liburutegiak, eta abar).
 9. Diziplinazko neurriak ezarri aurretik, bazkideak idatziz adierazitakoa kontuan hartzea eta neurri horiek hartzea eragin duten arrazoiei buruzko azalpenak jasotzea. Neurriak hartzeko arrazoiak emakume bazkideei dagozkien betebeharrak ez betetzean soilik oinarritu daitezke.
 10. Edozein unetan bajaran ematea. Bajan eman arren, bete gabe dituzten konpromisoak bete beharko dituzte.

31. artikulua.-

Emakume bazkideen betebeharrak.

- a) Elkartearen helburuekin bat etortzea eta helburu horiek betetzen laguntzea.
- b) Kuotak, zerga bereziak eta Estatutuen arabera bazkide bakoitzari dagozkion bestelako ekarpenak ordaintzea.
- c) Estatutuetatik eratorritako bestelako betebeharrak betetzea.
- d) Elkarteko zuzendaritza-organoei ballotasunez hartutako erabakiei men egin eta erabaki horiek betetzea.

EMAKUME BAZKIDE-IZAERA GALTZEA.

32. artikulua.- bazkide-izaera arrazoi hauengatik galduko da:

1. Hilez gero (edo, pertsona juridikoen kasuan, desagenez gero).
2. Bazkidea bere borondatez joanez gero.
3. Honelako egoeraren bat gertatzen bada: estatutu hauetatik ondorioztatutako betebeharrak modu larri ez betetzea, behin eta berriz, eta nahita, edo gauza bera gertatzea Batzar Orokorrek edo Zuzendaritza Batzordeak hartutako akordio baliodunei dagokienez.

ZEHAPE-ARAUBIDEA

33. artikulua.-

Emakume bazkideek behin eta berriz hausten badituzte Estatutuak edo Batzar Orokorrek nahiz Zuzendaritza Batzordeak hartutako erabakiak, Zuzendaritza Batzordeak bazkide horiek zehatu ahal izango ditu.

15 egunetik hilabetera eskubideak kentzetik hasi eta elkartetik betiko kanporatzera arteko zehapena ezar daiteke, ondorengo artikuluek

la asociación, siendo electora y elegible para los mismos.

6. Figurar en el fichero de socias previsto en la legislación vigente, y hacer uso del emblema de la asociación, si lo hubiere.
7. Poseer un ejemplar de los Estatutos y del Reglamento de Régimen Interior si lo hubiere, y presentar solicitudes y quejas ante los órganos directivos.
8. Participar en los actos sociales colectivos, y disfrutar de los elementos destinados a uso común de las socias (local social, bibliotecas, etc.).
9. Ser oída por escrito, con carácter previo a la adopción de medidas disciplinarias, e informada de las causas que motiven aquéllas, que sólo podrán fundarse en el incumplimiento de sus deberes como socias.
10. Darse de baja en cualquier momento, sin perjuicio de los compromisos adquiridos pendientes de cumplimiento.

Artículo 31.-

Son deberes de las socias:

- a) Compartir las finalidades de la asociación y colaborar en su consecución.
- b) Pagar las cuotas, derramas y otras aportaciones que, con arreglo a los estatutos, puedan corresponder a cada persona socia.
- c) Cumplir el resto de las obligaciones que resulten de los estatutos.
- d) Acatar y cumplir los acuerdos válidamente adoptados por los órganos de gobierno de la asociación.

PÉRDIDA DE LA CONDICIÓN DE SOCIA

Artículo 32.-

La condición de persona socia se perderá en los casos siguientes:

1. Por fallecimiento, o, disolución de las personas jurídicas (si las hubiera).
2. Por separación voluntaria.
3. Por separación por sanción, cuando se den algunas de las siguientes circunstancias: incumplimiento grave, reiterado y deliberado, de los deberes emanados de los presentes Estatutos, o, de los acuerdos válidamente adoptados por la Asamblea General o Junta Directiva.

RÉGIMEN SANCIONADOR

Artículo 33.-

Las asociadas podrán ser sancionadas por la Junta Directiva por infringir reiteradamente los Estatutos, o, los acuerdos de la Asamblea General o de la Junta Directiva.

Las sanciones pueden comprender desde la suspensión de los derechos, de 15 días a un mes, hasta la separación definitiva, en los términos

adierazitako moduan.

Horretarako, zehatuak izan daitezkeen jokabideak aztertzeko ikerketa egin dadila erabaki dezake presidenteak. Ikerketaren instrukziogilea idazkaria izango da, eta berak proposatuko dizkio Zuzendaritza Batzordeari hartu beharreko neurriak.

Zehapena ezartzeko ahalmena Zuzendaritza Batzordeak izango du, idazkariak ez du horretan parte-hartzerik izango (instrukziogilea delako), eta zehapena ezarri aurretik interesdunari entzunaldia eskainiko zaio. Zehatzeko erabakia arrazoitu egin beharko da beti, eta erabaki horren aurkako errekurtsoa jarri ahalgo zaio Batzar Orokorrari.

34. artikulua.-

Emakume bazkideren batek elkartetik kanporatua izateko moduko ustezko egintzaren bat egiten badu, hau da, Estatutuotatik eratorritako betebeharrak eta Batzar Orokorrak edo Zuzendaritza Batzordeak baliotasunez hartutako erabakietan ezarritako betebeharrak nahita eta larriki behin eta berriz hausten baditu, gertaeren berri izatearren, presidenteak idazkariari agindu diezaioke aurretiazko eginbide zehatz batzuk egin ditzala, behar den informazioa jasotzeko. Eginbide horiek ikusita, presidenteak jarduerak artxibatze-ko agintzea edo elkartetik kanporatzeko zehapen-espedienteari hasiera ematea erabaki dezake.

35. artikulua.-

Kanporatzeko zehapen-espedienteak hasten bada, idazkariak, gertakariak egiaztatu ondoren, idatzi bat bidaliko dio interesdunari, leporatzen zaizkion karguen berri emateko. Kargu horiei erantzuteko, interesdunak bere aldeko arrazoiak azaldu ahal izango ditu hamabost eguneko epean. Epe hori amaituta, edonola ere, Zuzendaritza Batzordearen lehenengo bilkurako gai-zerrendan sartuko da kasua, eta batzordeak hartuko du erabakia. Erabakian ez du botorik izango espediente-ko instruktoorea izan den idazkariak.

Behin-behineko kanporatzeko erabakia interesdunari jakinaraziko zaio, komunikatuz kanporatze-espedienteak Ezohiko Batzar Orokorrari helaraziko zaiola, zeinak behin betiko kanporatzeko erabakia hartuko baitu hala badagokio. Bitartean, Zuzendaritza Batzordeak inputatuari bazkide-eskubideak etetea erabaki ahal izango du, eta Zuzendaritza Batzordeko kide bada, kargu hori utzarazi beharko dio.

Kanporatze-espedienteak lehenengo Ezohiko Batzar Orokorrari helaraziko zaio. Batzarrerako deialdia ez bada hiru hilabetetan egiten, gai horretarako bakarrik egin beharko da, Batzordearen erabakia berresteko edo errebokatzeko.

Idazkariak espedientearen laburpena egingo du, Zuzendaritza Batzordeak inputatuak aurkeztutako idatziaren eta egintzen berri zehatza Batzar Orokorrari eman ahal izateko, azken horrek dagokion erabakia har dezan.

previstos en los siguientes artículos.

A tales efectos, la Presidencia podrá acordar la apertura de una investigación para que se aclaren aquellas conductas que puedan ser sancionables. Las actuaciones se llevarán a cabo por la Secretaría, como órgano instructor, que propondrá a la Junta Directiva la adopción de las medidas oportunas.

La imposición de sanciones será facultad de la Junta Directiva, sin la participación de la secretaria (por ser órgano instructor), y deberá ir precedida de la audiencia de la persona interesada. Contra dicho acuerdo, que será siempre motivado, podrá recurrirse ante la Asamblea General.

Artículo 34.-

En caso de incurrir una socia en una presunta causa de separación de la asociación, por un incumplimiento grave, reiterado y deliberado de los deberes emanados de los presentes Estatutos, o, de los acuerdos válidamente adoptados por la Asamblea General o Junta Directiva; la Presidencia podrá ordenar a la Secretaría la práctica de determinadas diligencias previas, al objeto de obtener la oportuna información, a la vista de la cual, la Presidencia podrá mandar archivar las actuaciones o incoar expediente sancionador de separación.

Artículo 35.-

Si se incoara expediente sancionador de separación, la persona secretaria, previa comprobación de los hechos, remitirá a la persona interesada un escrito en el que se pondrán de manifiesto los cargos que se le imputan, a los que podrá contestar alegando en su defensa lo que estime oportuno en el plazo de quince días, transcurridos los cuales, en todo caso, se incluirá este asunto en el Orden del día de la primera sesión de la Junta Directiva, la cual acordará lo que proceda, sin el voto de la persona secretaria, que ha actuado como instructor del expediente.

El acuerdo de separación provisional será notificado a la interesada, comunicándole que el expediente de separación será elevado a la Asamblea General Extraordinaria, que adoptará, si procede, el acuerdo de separación definitiva. Mientras tanto, la Junta Directiva podrá acordar que la inculpada sea suspendida en sus derechos como socia y, si formara parte de la Junta Directiva, deberá decretar la suspensión en el ejercicio del cargo.

El expediente de separación se elevará a la primera Asamblea General Extraordinaria que se celebre, que, de no convocarse en tres meses, deberá serlo a tales efectos exclusivamente, a fin de que ratifique o revoque la decisión de la Junta.

La secretaria redactará un resumen del expediente, a fin de que la Junta Directiva pueda dar cuenta a la Asamblea General del escrito presentado por la inculpada, e informar debidamente de los hechos para que la Asamblea pueda adoptar el correspondiente acuerdo.

36. artikulua.-

Behin betiko kanporatze-erabakia arrazoitu egin behar da beti, eta erabaki hori interesdunari jakinarazi behar zaio. Interesdunak, eskubideaz baliatuz, auzitegiatar jo ahal izango du bere ustez erabakia legearen edo Estatutuen aurkakoa bada.

37. artikulua.-

Emakume bazkideren bati kanporaketaren berri ematerakoan —berak nahi izanda edo zehapena ezarri zaiolako— bete gabe dituen betebeharrak bete ditzala eskatuko zaio.

LAUGARREN KAPITULUA

SOZIAL-ONDAREA ETA AURREKONTU-ARAU BIDEA

38. artikulua.-

Elkartearen **SOZIAL ONDAREA** 0 eurokoa da.

39. artikulua.-

Elkartek, bere jarduerak aurrera eramateko, diru-baliabide hauek aurreikusten ditu:

- Ondarezko ekarpenak.
- Erabakitzen diren aldizkako kuotak.
- Elkartearen ondasun eta eskubideetatik datozen emaitzak, eta lege jasotzen dituen diru-laguntzak, legatuak eta dohaintzak.
- Zuzendaritza Batzordeak Estatutuen helburuak lortzeko egin beharrekotzat jotzen dituen jarduera zilegietatik datozen diru-sarrerak.

ELKARTEAREN EKITALDIA ETA EKITALDI EKONOMIKOA urtebetekoa izango da, eta urte bakoitzeko abenduaren 31an itxiko da.

Elkartek jarduera ekonomikoak —zerbitzu-emateak barne— egitearen ondorioz lortzen dituzten mozkinak emakume elkartearen xedeak betetzeko bakarrik erabili behar dira. Mozkinak ezin dira banatu ez bazkideen artean, ez horien ezkontideen edo bazkideekin ezkontzaren antzeko harreman afektiboa tarteko bizi diren pertsonen artean, ez eta horien ahaideen artean ere; orobat, mozkinak ezin zaizkie dohain laga irabazi-asmoa duten pertsona fisikoek edo juridikoek.

BOSGARREN KAPITULUA

ESTATUTUAK ALDATZEA

40. artikulua.-

Estatutuak aldatzea propio horretarako deitutako emakume bazkideen ezohiko batzar orokorrean erabaki behar da. Zuzendaritza Batzordeak hiru emakume bazkidek osatutako batzorde-txostengile bat izendatuko du, aldaketa-egitasmoa idazteko. Egitasmo hori Zuzendaritza Batzordeak

Artículo 36.-

El acuerdo de separación definitiva, que será siempre motivado, deberá ser comunicado a la interesada, pudiendo ésta recurrir a los Tribunales en ejercicio del derecho que le corresponde, cuando estime que aquél es contrario a la Ley o a los Estatutos.

Artículo 37.-

Al comunicar a una socia su separación de la Asociación, ya sea con carácter voluntario o como consecuencia de sanción, se le requerirá para que cumpla con las obligaciones que tenga pendientes para con aquélla, en su caso.

CAPÍTULO CUARTO

PATRIMONIO SOCIAL Y RÉGIMEN PRESUPUESTARIO

Artículo 38.-

El **PATRIMONIO SOCIAL** de la Asociación asciende a 0 de euros.

Artículo 39.-

Los recursos económicos previstos por la Asociación para el desarrollo de las actividades sociales, serán los siguientes:

- Las aportaciones patrimoniales.
- Las cuotas periódicas que acuerden.
- Los productos de los bienes y derechos que le correspondan, así como las subvenciones, legados y donaciones que pueda recibir en forma legal.
- Los ingresos que obtenga la Asociación mediante las actividades lícitas que acuerde realizar la Junta Directiva, siempre dentro de los fines estatutarios.

EL EJERCICIO ASOCIATIVO Y ECONÓMICO será anual y su cierre tendrá lugar el día 31 del mes de diciembre de cada año.

Los beneficios obtenidos por la asociación, derivados del ejercicio de actividades económicas, incluidas las prestaciones de servicios, deberán destinarse, exclusivamente, al cumplimiento de sus fines, sin que quepa en ningún caso su reparto entre las socias ni entre sus cónyuges o personas que convivan con aquéllos con análoga relación de afectividad, ni entre sus parientes, ni su cesión gratuita a personas físicas o jurídicas con interés lucrativo.

CAPÍTULO QUINTO

DE LA MODIFICACIÓN DE ESTATUTOS

Artículo 40.-

La modificación de los Estatutos habrá de acordarse en Asamblea General extraordinaria de las socias convocada específicamente con tal objeto. La Junta Directiva designará una Ponencia formada por tres socias, a fin de que redacte el

ezarritako jarraibideen arabera egingo da, eta batzorde berak jarriko du egitasmoa amaitzeko epea.

41. artikulua.-

Aldaketa-egitasmoa epe barruan idatzi eta gero, presidenteak Zuzendaritza Batzordearen hurrengo bilkurako gai-zerrendan sartuko du. Zuzendaritza Batzordeak egitasmoa onartuko du edo, bestela, lantaldeari itzuliko dio, berriz aztertu dezan.

Egitasmoa onartuz gero, hurrengo Ezohiko Batzar Orokorreko gai-zerrendan sartzea erabakiko du Zuzendaritza Batzordeak.

42. artikulua.-

Batzarrerako deiarekin batera, Estatutueto aldaketen testua bidaliko da, bazkideek egoki iruditzen zaizkien zuzenketak Idazkaritzan aurkeztu ahal izateko. Zuzenketa horiek Batzar Orokorrari helaraziko zaio, batzarra egin baino zortzi egun lehenago jaso badira Idazkaritzan.

Zuzenketak banaka nahiz taldeka egin daitezke, idatziz, eta aukerako beste testu bat izan beharko dute. Zuzenketak bozkatu ostean, Batzar Orokorrak Estatutuak aldatzeko erabakia hartuko du, eta Elkarteen Erregistro Orokorrean inskribatzen denetik aurrera baino ez du eragina izango hirugarrenengan.

SEIGARREN KAPITULUA

ELKARTEA DESEGITEA ETA ONDARE SOZIALAREN ZERTARAKOA

43. artikulua.-

Elkartea kasu hauetan desegingo da:

1. Emakume bazkideek hala nahi dutelako. Nahi hori horretarako bildutako Ezohiko Batzar Orokorrean azaldu beharko da.
2. Estatutuetoan finkatutako epea edo baldintza bete delako.
3. Beste elkarte batek xurgatu duelako edo beste elkarte batzuekin bat egin duelako.
4. Legez ezarritako gutxieneko emakume bazkide-kopururik ez duelako.
5. Epai irmo batek elkartea desegitea agintzen duelako.
6. Elkartearen helburuak betetzea ezinezkoa delako.

44. artikulua.-

Elkartea deseginez gero, hori erabakitzen duen Ezohiko Batzar Orokorrak Batzorde Likidatzaile bat izendatuko du, dauden funtsez ardura dadin.

Emakume bazkideekiko eta besteekiko elkarte-betebeharak bete ondoren, geratzen den elkarte-ondarea, geratzen bada behintzat, irabazi-asmorik gabeko entitatearen bati edo irabazi-asmorik gabeko ekimenen bati eman beharko zaio.

proyecto de modificación, siguiendo las directrices impartidas por aquélla, la cual fijará el plazo en el que tal proyecto deberá estar terminado.

Artículo 41.-

Una vez redactado el proyecto de modificación en el plazo señalado, la presidenta lo incluirá en el Orden del Día de la primera Junta Directiva que se celebre, la cual lo aprobará o, en su caso, lo devolverá a la Ponencia para nuevo estudio.

En el supuesto de que fuera aprobado, la Junta Directiva acordará incluirlo en el Orden del Día de la próxima Asamblea General Extraordinaria que se celebre.

Artículo 42.-

A la convocatoria de la Asamblea se acompañará el texto de la modificación de Estatutos, a fin de que las personas socias puedan dirigir a la Secretaría las enmiendas que estimen oportunas, de las cuáles se dará cuenta a la Asamblea General, siempre y cuando estén en poder de la Secretaría con ocho días de antelación a la celebración de la sesión.

Las enmiendas podrán ser formuladas individualmente o colectivamente, se harán por escrito y contendrán la alternativa de otro texto. Tras la votación de las enmiendas, la Asamblea General adoptará el Acuerdo de modificación estatutaria, el cual sólo producirá efectos ante terceros desde que se haya procedido a su inscripción en el Registro General de Asociaciones.

CAPÍTULO SEXTO

DE LA DISOLUCIÓN DE LA ASOCIACIONES Y APLICACIÓN DEL PATRIMONIO SOCIAL

Artículo 43.-

La Asociación se disolverá:

1. Por voluntad de las socias, expresada en Asamblea General extraordinaria convocada al efecto.
2. El cumplimiento del plazo o condición fijados en los estatutos
3. La absorción o fusión con otras asociaciones.
4. La falta del número mínimo de asociadas legalmente establecido.
5. Por sentencia judicial firme que se acuerda la disolución.
6. La imposibilidad de cumplimiento de los fines sociales.

Artículo 44.-

En caso de disolverse la Asociación, la Asamblea General extraordinaria que acuerde la disolución, nombrará una Comisión Liquidadora, la cual se hará cargo de los fondos que existan.

Una vez satisfechas las obligaciones sociales frente a las socias y frente a terceras personas, el patrimonio social sobrante, si lo hubiere, será

entregado a una entidad sin ánimo de lucro o para fines sin ánimo de lucro.

AMAIERAKO XEDAPENA

Estatutu hauek garatzeko asmoz, Batzar Orokorrak barne-araudia onartu ahal izango du, baina horrek inolaz ere ez ditu Estatutuetako aginduak aldatuko.

DISPOSICIÓN FINAL

La Asamblea General podrá aprobar un Reglamento de Régimen Interior, como desarrollo de los presentes Estatutos, que no alterará, en ningún caso, las prescripciones contenidas en los mismos.

